Elkartea honako hauek arautuko dute: elkarteei buruzko aipatu legeek; estatutu hauek, lege horiekin kontraesanik ez badute; elkartearen gobernu organoek balio osoz hartutako erabakiek, baldin eta ez badira Legearen edo/eta estatutuen aurkakoak, eta Eusko Jauriaritzak onartuko dituen araudizko xedapenak; azken horiek izaera osagarria izango dute.

HELBURUAK

1. artikulua.- Honako hauek dira Elkartearen helburuak:

Adinekoei espazio bat ematea sozializaziorako eta taldean jarduerak egiteko, erabilgarri eta aktibo mantentzeko, haien isolamendua prebenitzeko eta erretiro dinamikoa eta osasungarria sustatzeko.

Helburu horiek erdiesteko, honako **JARDUERA** hauek egingo dira, besteak beste, legez ezarritako betekizunak bete ondoren:

Prestakuntzakoak, esaterako, ikastaroak, tailerrak eta hitzaldiak.
Jolasekoak, adibidez, txangoak, bidaiak, txapelketak eta zozketak.
Autoestimua indartzekoak, adibidez, omenaldiak eta ospakizunak.

Aurreko paragrafoan deskribatutako jarduerak hargatik eragotzi gabe, elkarteak honako hauek egin ahalko ditu bere helburuak betetzeko:

- Askotariko jarduera ekonomikoak egin, bere helburuak betetzeko edo helburu horrekin baliabideak batzeko.
- Askotariko ondasunak eskuratzea eta edukitzea, edozein titulutan, eta askotariko ekitaldiak eta kontratuak egitea.
- Askotariko ekintzak egitea, legeei edo bere estatutuei jarraituz.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.-

Elkartearen helbide nagusia hau izango da: Idiakez kalea, 6. zk., behea, Donostia, 20004 posta kodea.

Elkarteak beste lokal batzuk eduki ahalko ditu Autonomia Erkidegoan, Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.-


Elkartearen jardunaren lurralde eremu nagusia Donostia udalerria izango da.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.-

Elkarteak izaera iraunkorra izango du, eta Batzar Nagusiaren ezohiko bileran hala erabakita soilik desegingo da, VI. kapituluan ezarritakoaren arabera edo legeetan aurreikusitako edozein arrazoi dela tarteko.

Elkartearen barne antolaketa eta funtzionamendua demokratikoak izango dira, eta erabat errespetatuko dute aniztasuna. Zuzenbidean erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen ezein alderdi aintzat hartzen ez duten itunak, estatutuko xedapenak eta hitzarmenak.



ESTATUTOAK

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ORGANOAK ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernatzeaz eta administratzeaz kide anitzeko organo hauek arduratuko dira:
- • Bazkideen Batzar Nagusia, organo gorena gisa.
 - • Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organo gisa.

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Batzar Nagusia bazkide guztiek osatzen dute, eta haiek beren nahia adierazteko organoa da.

Batzar Nagusiaren eskumenak:

- Elkartearen jardueraren plan orokorra onestea.
- Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onestea
- Estatutuak aldatzea.
- Elkartea desagitea.
- Kide anitzeko organoaren lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta gainerako kideak, beste kiderik izanez gero, aukeratzea eta kargutik kentzea, eta organoa gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Beste elkarte batzuekin federazioa eta konfederazioa osatzea edo halakoetatik alde egitea.
- Ondasun higiezinaren jabetza edo besterentzea onartzea.
- Gobernu organoko kideen ordainsaria adostea, hala badagokio.
- Ohiko edo ezohiko kuotak ezartzea. Nolanahi ere, eskumen hori gobernu organoaren esku utzi ahalko du Batzar Nagusiak, horretarako berariazko akordioaren bidez.
- Bazkideak behin betiko baztertzeko erabakia hartzea.
- Zuzendaritza Batzordeak emandako diziplina-neurrien kontra bazkideek aurkeztutako errekursoak ebatzea.
- Elkarteko beste organo bati esleitu ez zaion eskumen oro.

8. artikulua.- Batzar Nagusiak ohiko eta ezohiko bilera egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Nagusiak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilera, 7. artikuluko a), b) eta c) puntuetan aurreikusitako erabakiak hartzeko.

- 10.-artikulua.- Batzar Nagusiak ezohiko bilera egingo du Zuzendaritza Batzordeak hala erabakiz gero, bere ekimenez edo bazkideen % 7k (zazpi) eskatuta, eta bileraren arrazoiak eta helburua adierazi beharko ditu. Edonola ere, ezohiko bilera egingo da honako gai hauen inguruan informazioa emateko eta erabakiak hartzeko:


- Estatutuen aldaketa.
- Elkartearen desagitea.
- Barne-araubidearen aldaketa.
- Zuzendaritza Batzorde osoa edo zati bat kargugabetzea.

- 11.-artikulua.- Batzar Nagusiaren bilera deialdiak idatziz egingo dira, tokia, eguna eta ordua adierazita, baita aztergai zerranda ere. Batzarrera lehen deialdian biltzeko eguna baino bost egun lehenago deitu beharko da, gutxienez. Egoki izanez gero, bigarren deialdiko bileraren data eta ordua ere adierazi ahalko dira; bi deialdien artean ordu erdiko tarte utzi beharko da, gutxienez.

Batzar Nagusiaren ohiko nahiz ezohiko bilera lehen deialdian behar bezala osatuta geratzeko, beharrezkoa izango da bozkatzeko eskubidea duten bazkideen herenak bertaratzeko. Bigarren deialdian behar bezala osatuta egongo dira edozein dela ere bozkatzeko eskubidea duten bazkideen kopurua.

- 12.-artikulua.- Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratu edo ordezkatu gehiengo sinplez hartuko dira, hau da, nahikoa izango da aldeko botoak aurkakoak baino gehiago izatea. Dena den, honako erabaki hauek bertaratu gehiengo osoa beharko du (erdia +1):

- Elkartea desagitea.



ESTATUTOAK

- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasun eskuratzea edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza organoko kideen ordainsaria finkatzea.
- e) Zuzendaritza Batzorde osoa edo zati bat kargugabetzea.

13.-artikulua.- Batzar Nagusiaren bileretan parte hartzeko, bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi ahalko dute beren ordezkaritza, aurreko artikuluan jasotakoan izan ezik. Ordezkaritza hori idatziz jaso beharko da, eta Batzarreko idazkariak saioa hasi aurretik izan beharko du. Elkarreak helbide soziala duen hiritik kanpo bizi diren bazkideek postaz bidali ahalko dute ordezkaritzaren agiria.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14.-artikulua.- Zuzendaritza Batzordea ordezkaritza organo bat da, eta elkarrearen interesak kudeatzen eta ordezkatzen ditu, Batzar Nagusiaren xedapenen eta jarraibideen arabera. Bazkideak bakarrik izan daitezke ordezkaritza organoko kideak. Zuzendaritza Batzordeko kargu guztiak borondatezkoak eta doakoak izango dira.

Honako hauek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea:

- ✓ Lehendakaria
- ✓ Idazkaria
- ✓ Diruzaina
- ✓ Lehendakariordea
- ✓ Kideak: gutxienez 3 eta gehienez 7.

Zuzendaritza Batzordeko kide batek 3 aldiz jarraian edo jarraian izan gabe 5 aldiz arrazoi justifikaturik gabe huts egiten badu aipatutako bileretara, dagokion kargua utzi beharko du.

16.-artikulua.- Batzar Nagusiak bi urterako aukeratuko ditu Zuzendaritza Batzordea osatzen duten karguak, Batzarrak berariaz behar baino lehenago baliogabetzea eskatu ezean. Batzordekideak berriz hautatu ahalko dira.

17.-artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, baldintza hauek ezinbestean bete beharko dira:

- a) Eskubide zibilak erabiltzeko moduan egotea eta indarreko legedian ezarritako bateraezintasun arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkidea izatea.

18.-artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izaera hartuko da Batzar Nagusiak izendatu ostean onartutakoan edo kargua hartutakoan.

Hala badagokio, Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeko kideei dietak eta gastuak ordaintzea adostu ahalko du.


19.-artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dute kargua:

- a) Agintaldia amaituz gero.
- b) Dimisioa emanez gero.
- c) Bazkide izateari utziz gero edo ezintasunen bat suertatuz gero.
- d) Batzar Nagusiak baliogabetuz gero, Estatutuen 16. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.
- e) Hilez gero.

a) apartatuan ezarritako kausagatik kargugabetzean; edo d) apartatukoagatik kargugabetzeak kide guztiei eragiten dienean, eta egintza berean batzorde berria izendatzen ez denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute hurrengo Batzar Nagusia egin arte, han hautatuko baitira kargu berriak.

b) eta c) kasuetan, d) kasuan batzordeko kideren bat kargugabetzen bada eta egintza berean ordezkoa izendatzen ez bada, eta e) kasuan, Zuzendaritza Batzordeak berak hutsunea beteko du behin-behineko izendapen batekin. Batzar Nagusiari aurkeztuko zaio, berrets edo bazter dezan, eta, baztertuz gero, dagokion izendapena egingo da.

Organo horren osieran gertatzen den aldaketa oro Elkarteen Erregistroari jakinaraziko zaio.



ESTATUTOAK

20.-artikulua.-

Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiaren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
- b) Elkartearen jarduerak era egokian egiteko behar beste kontratu adostea, haren izenean.
- c) Elkartearak egin beharreko jarduerak programatzea.
- d) Urteko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua Batzar Nagusian aurkeztekoa, onar dadin, baita aurreko urteko kontuen egoera ere.
- e) Batzar Nagusiaren bileretako aztergaiaren zerrenda prestatzea, eta Batzar Nagusiaren ohiko eta ezohiko bileren deialdia erabakitzea.
- f) Bazkideek aurkeztutako proposamenei edo iradokizunei erantzutea, horretarako beharrezko neurriak hartuta.
- g) Estatutuaren jasotako aginduak interpretatzea eta hutsuneak betetzea, betiere elkartei buruz indarrean dagoen legeko araudiarekin bat etorruta.
- h) Elkartearen interesak defendatzeko behar diren ekintza judizialak eta administratiboak egitea, eta Batzar Nagusiari horien berri ematea, egiten duen lehen saioan.
- i) Batzar Nagusiak berariazko erabakiz emandako eskumenak erabiltzea, baldin eta haren eskumen eksklusiboak ez badira.

21.-artikulua.-

Zuzendaritza Batzordea lehendakariak bere ekimenez edo batzordekide batek eskatuta deialdia egiten duen guztietan bilduko da. Lehendakaria izango da batzordeburua, eta, hura ez badago, lehendakariordea, halakorik izanez gero; biak falta badira, batzordekide adintsuenak jardungo du batzordeburu gisa.

Batzordearen erabakiak baliodunak izateko, bertaratuen botoen gehiengoz hartu beharko dira, eta beharrezkoa izango da batzordekideen erdiak bertan izatea. Berdinketa izanez gero, lehendakariak kalitateko botoa izango du.

Idazkariak bileren akta jasoko du, eta dagokion liburuan transkribatuko du.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KARGUAK

LEHENDAKARIA

22.-artikulua.-

Elkarteko lehendakariak bere gain hartuko du elkartearen legeko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren erabakiak betearaziko ditu. Bera izango da bi organo horien burua.

23.-artikulua.-

Hauek izango dira lehendakariaren eskumenak:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren bileretara deitzea eta amaitutzat ematea, organo baten zein bestearen deliberazioak bideratzea eta kalitateko botoaz erabakitzea bozketetan berdinketa izanez gero.
- b) Zuzendaritza Batzordeari elkartearen jarduera plana proposatzea, haren zereginak bultzatuta eta zuzenduta.
- c) Behar bezala adostutako ordainketak agintzea.
- d) Sor daitezkeen premiazko gorabeherak ebaztea, eta Zuzendaritza Batzordeari horien berri ematea, egiten duen hurrengo saioan.
- i) Batzar Nagusiak berariazko erabakiz emandako eskumenak erabiltzea, non eta ez diren haren eskumen eksklusiboak.
- f) Elkartearen izenean Zuzendaritza Batzordeak aldeztu aurretik onartutako kontratuak formalizatzea.
- g) Eginkizun horiek gauzatzeko, zentroko idazkaritza administratiboaren laguntza izango du.

LEHENDAKARIORDEA


24.-artikulua.-

Lehendakariordearen eginkizuna izango da lehendakariari laguntzea eta haren ordezkari gisa jardutea aldi batez ezin badu kargua bete. Halaber, lehendakariak berariaz haren esku utzitako eskumen oro hartuko du bere gain.

IDAZKARIA

25.-artikulua.-

Idazkariaren zeregin zehatza izango da Elkarteko kide izateko eskaerak jasotzea eta izapidetzea, fitxategiaz eta Bazkideen Erregistro Liburuaz arduratzea eta Akten Liburua zaintzea eta idaztea.



ESTATUTOAK

Era berean, elkarteei buruz indarrean dauden legezko xedapenak betetzen direla bermatuko du, elkartearen dokumentazio ofiziala zainduz, elkarteko liburu eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordearen izendapenaren eta helbide sozialaren aldaketen gaineko jakinarazpenak agintaritza eskudunari helaraziz.

DIRUZAINA

26.-artikulua.-

Diruzainak ezagutzera emango ditu diru sarrerak eta ordainketak, diru sarreren eta gastuen urteko aurrekontua formalizatuko du, baita aurreko urteko kontuen egoera ere; Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dizkio, horrek Batzar Nagusiari aurkezteko, onar ditzan.

Eginkizun horiek gauzatzeko, zentroko idazkaritza administratiboaren laguntza izango du.

BATZORDEKIDEAK

27. artikulua.-

Batzordekideek Zuzendaritza Batzordeko kide karguaren berezko betebeharrak izango dituzte (elkartearen ohiko zuzendaritza eta kudeaketa), baita batzordeak berak agindutakoak ere.


HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK ONARTZEKO BETEKIZUNAK ETA PROZEDURA ETA BAZKIDE MOTAK

28. artikulua.-

Elkarteko kide izan daitezke hala nahi izanik baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak:

- Bazkide arrunta: 55 urte baino gehiago izatea eta erretiroduna izatea edo bestelako edozein pentsio jasotzea, eta bere eskubidea erabiltzeko legezko ezein baldintzaren menpe ez egotea, eta bere gaitasuna epaile baten epai irmoz mugatua ez izatea.
- Bazkide laguntzailea: Elkarteari laguntzen dion eta haren aldeko jarduerak egiten dituen, edozein adinekoa. Estatutu hauen 30. artikuluko 8., 9., 10. eta 11. artikuluan jasotako eskubideak bakarrik aitortuko zaizkio, eta estatutu hauen 31. artikuluko b) artikuluan jasotako betebeharretatik salbuetsita egongo da.
- Goian adierazitakoa hargatik eragotzi gabe, elkarteak ohorezko bazkide izendatu ahalko ditu elkartearen edo haien kideen mesedetan eskuzabaltasun ekintzak egin dituztenei omendu nahi dituenak. Izendapen hori ohorezkoa da guztiz, eta ez du zuzenbideko inolako izaera juridikorik edo betebeharririk ematen. Batzar Nagusiak egingo ditu izendapenak, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, bere ekimenez edo bazkideren batena bere eginez.
- Donostian bizi ez arren elkarteko bazkide egin nahi dutenek eskaera bat aurkeztu beharko dute, idatziz, hala egiteko interesa dutela adierazteko, eta Zuzendaritza Batzordeak ebatziko du onartu edo ez.



ESTATUTOAK

29. artikulua.- Elkarteko kide izan nahi dutenek hau egin beharko dute:

- 1) Zentroak ezarritako formularioa betetzea.
- 2) Zuzendaritza Batzordeak horretarako ezarritako ordutegian ematea.
- 3) Bidaietarako, ikastaroetarako edo jardueretarako izen-emateak egiten diren egunetan, ez zaie bazkide berriei altarik emango.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30.-artikulua.- Bazkideen eskubideak:

- 1) Elkarteen Legearen edo estatutuen aurkako erabaki eta ekintzak aurkaratzea. Horretarako, bazkideek berrogei egun naturaleko epea izango dute, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu dutenetik edo ezagutzeko aukera izan dutenetik zenbatzen hasita.
- 2) Informazioa jasotzea elkarteko gobernu eta ordezkaritza organoen osaerari buruz, kontuen egoerari buruz eta jardunaren garapenari buruz.
- 3) Edozein unetan ezagutzea elkarteko gainerako kideen identitatea, sarreraren eta gastuen kontuen egoera eta elkarrearen jardunaren garapena, datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako baldintzetan, betiere.
- 4) Batzar Nagusiaren bileretarako deialdia jasotzea, baita horietan parte hartzea eta hitz egin nahiz bozkatzeko eskubidea erabiltzea ere. Eskubide hau gauzatzeko, beste bazkide batzuen esku utz dezakete beren ordezkaritza.
- 5) Estatutuaren ezarritakoaren arabera elkarteko zuzendaritza organoetan parte hartzea, hautesle eta hautagarri gisa.
- 6) Indarreko legedian aurreikusitako Bazkideen Fitxategian agertzea, eta elkarrearen ikurra erabiltzea, halakorik izanez gero.
- 7) Estatutuen eta, halakorik izanez gero, Barne Araudiaren kopia bat edukitzea, eta zuzendaritza organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Elkarteko ekintza kolektiboetan parte hartzea, eta bazkide guztiek erabil ditzaketen elementuak erabiltzea (elkarteko lokala, liburutegiak, etab.).
- 9) Haien kontrako diziplinazko neurriak hartu aurretik iritzia idatziz adierazi ahal izatea, eta horrelako neurrien arrazoien berri jasotzea. Horrelako neurriek bazkide betebeharrak ez betetzea bakarrik izan dezakete oinarritzat.
- 10) Behar besteko errespetuz tratatua izatea elkarrearen jardun eremu guztietan.
- 11) Edozein unetan baja ematea. Horrek ez du eraginik izango onartuta izanik bete gabe dituzten konpromisoetan.

31.-artikulua.- Honako hauek dira bazkideen betebeharrak:

- a) Elkarrearen helburuekin bat etortzea eta horiek lortzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta estatutuen arabera bazkideei egotz dakizkiekeen bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuaren ezarritako gainerako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko gobernu organoek behar bezala hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.
- e) Elkarrearen instalazioetan eta eta jardueretan bizikidetzarako oinarritzko arauak errespetatzea.
- f) Behin baja eman ondoren berriz ere alta eman nahi izanez gero, zehapen gisa ordaindu beharko da indarrean dagoen kuota halako bi, baita altaren kuota ere.


BAZKIDE IZAERA GALTZEA

32. artikulua.- Honako kasu hauetan utziko zaio bazkide izateari:

1. Hiltzea edo pertsona juridikoak desagitea (halakorik badago).
2. Nork bere borondatez elkartea uztea.
3. Zigorragatik elkartetik kanporatzea, egoera hauetakoren bat gertatuz gero: estatutu hauek eta Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak balio osoz hartutako erabakiek dakartzaten betebeharrak larriki, behin eta berriz eta nahita urratzea.

ZEHAZTEKO ARAUBIDEA

33. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak zehatu egin ahalko ditu bazkideak, estatutuak edo Batzar Nagusiak zein Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz urratzeagatik.



ESTATUTOAK

Zehapena 15 egun eta hilabete bitarte eskubideak bertan behera gelditzea izan daiteke, baita elkartetik behin betiko kanporatzea ere, hurrengo artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.

Ondore horietarako, lehendakariak ikerketa bat abiaraztea erabaki ahalko du, jokabide zehagarriak argitzeko. Izapideak idazkariak gauzatuko ditu, instrukzio organo gisa, eta horrek proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurri egokiak.

Zehapenak ezartzeko eskumena Zuzendaritza Batzordearena izango da, idazkaria kanpo utzita (instrukzio organoa delako), eta, zehapena ezarri aurretik, interesdunak esan beharrekoa entzun beharko du. Zehapen erabakiak arrazoituta egon beharko du, eta Batzar Nagusiaren aurrean errekurtsua aurkezteko aukera izango da.

34.-artikulua.- Estatutuek edo Batzar Nagusiak zein Zuzendaritza Batzordeak balio osoz hartutako erabakiek dakartzaten betebeharrak larriki, behin eta berriz eta nahita urratzeagatik bazkide bat elkartetik kanporatzeko ustezko arrazoiren bat izanez gero, lehendakariak aurretiko diligentsia batzuk egiteko agindu ahalko dio idazkariari, informazio egokia biltze aldera. Informazio hori aztertuta, lehendakariak jarduketak artxibatzea agindu ahalko du, edo kanporatzeko zehapen espediente irekiko du.

35.-artikulua.- Bazkidea kanporatzeko zehapen espediente espediente irekiz gero, idazkariak, aldeztu aurretik gertaerak egiaztatu ostean, interesdunari idatzi bat igorriko dio, egotzen zaizkion karguen berri emateko. Interesdunak kargu horiei erantzuteko aukera izango du, bere burua defendatzeko egoki irizten diona argudiatuta. Hamabost eguneko epea izango du horretarako, eta, epe hori amaitutakoan, edonola ere, gaia Zuzendaritza Batzordearen hurrengo ohiko bilerako aztergaien zerrendan sartuko da. Zuzendaritza Batzordeak dagokiona erabakiko du, idazkariak botorik eman gabe, espedientearen instrukture gisa jardun duelako.

Interesdunari kanporatzeko erabakiaren berri emango zaio, eta jakinaraziko zaio haren aurkako helegitea aurkez dezakeela Batzar Nagusiaren hurrengo ezohiko bileran. Hiru hilabeteren buruan ez bada ezohiko bilerara deitzen, gai hori aztertzeko berariaz deitu beharko da. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak erabaki dezake akusatuari bazkide eskubideak kentzea, eta, Zuzendaritza Batzordeko kide izanez gero, karguaren jarduna bertan behera uzteko aginduko du.

Batzar Nagusiari kanporatzeko espedientearen aurkako errekurtsua aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpen bat prestatuko du, Zuzendaritza Batzordeak akusatuak aurkeztutako idatziaren berri eman diezaion Batzar Nagusiari, eta behar bezala eman dezan gertaeren berri, Batzarrak dagokion erabakia hartu ahal izateko.

36.-artikulua.- Kanporatzeko erabakiak arrazoituta egon beharko du, eta interesdunari jakinarazi beharko zaio. Erabakia Legearen edo estatutuen aurkakoa dela iruditzen bazaio, interesdunak auzitegiara jo ahalko du, dagokion eskubidea erabiliz.

37.-artikulua.- Bazkide bati bere borondatez edo zehapen baten ondorioz elkartetik kanpo geratuko dela jakinaraztean, elkartearekin bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN KAPITULUA


ONDARE SOZIALA ETA AURREKONTUEN ARAUBIDEA

38.-artikulua.- Elkarrekin ez dauka berezko ondarerik.

39.-artikulua.- Elkarrekin bere jarduerak garatzeko aurreikusi dituen baliabide ekonomikoak honako hauek dira:

- a) Ondare ekarpenak.
- b) Adostutako aldizkako kuotak.
- c) Dagozkion ondasun eta eskubideen emaitzak eta legeztasun ditzakeen laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak estatutuaren helburuak lortze aldera ados ditzakeen legeztasun jardueren bidez jasotako diru sarrerak.

Elkarrekin ekitaldia eta ekitaldi ekonomikoak urtebetekoak izango dira, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko dira.



ESTATUTOAK

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) elkarteak irabaziak lortzen baditu, bere helburuak betetzeko bakarrik erabiliko ditu. Ez dira inolaz ere bazkideen artean banatuko, ezta haien ezkontideen edo haiekin antzeko afektibitate harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere, eta ezingo zaizkie doan laga irabazi asmoak dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

- 40.-artikulua.- Estatutuen aldatzea Batzar Nagusiak berariaz helburu horretarako deitutako ezohiko bilera batean adostu beharko da. Zuzendaritza Batzordeak batzorde txostengile bat izendatuko du, hiru bazkidek osatua, aldaketa proiektua idatz dezan Zuzendaritza Batzordeak emandako jarraibideei jarraituz, eta Zuzendaritza Batzordeak zehaztuko du zer epetarako bukatu beharko den proiektua.
- 41.-artikulua.- Aldaketa proiektua zehaztutako epean idatzi ostean, lehendakariak Zuzendaritza Batzordeko hurrengo bileraren gai zerrendan sartuko du, eta hark onartu egingo du, edo, bestela, batzorde txostengileari bueltan bidaliko dio, berrazter dezan.
- Proiektua onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiaren hurrengo bileraren gai zerrendan sartzea erabakiko du.
- 42.-artikulua.- Batzar Nagusiaren bilera deialdiari estatutuak aldatzeko testua erantsiko zaio, bazkideek ondo iruditzen zaizkien zuzenketak idazkariari aurkezteko modua izateko. Batzar Nagusiari zuzenketa horien berri emango zaio, baldin eta idazkariaren esku badaude bilera eguna baino zortzi egun lehenago.

Zuzenketak bakarka edo taldeka egin ahalko dira, idatziz aurkeztuko dira eta ordezeko testu bat proposatuko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Nagusiak estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du. Erabaki horrek Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatu ostean bakarrik izango du eragina hirugarrenen aurrean.


SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALA APLIKATZEA

- 43.-artikulua.- Elkartearen kasu hauetan desegingo da:
1. Bazkideek hala nahi dutelako, berariaz horretarako deitutako Batzar Nagusiaren ezohiko bilera batean nahi hori adierazita.
 2. Estatutuetan zehaztutako epea edo baldintza bete delako.
 3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batekin bat egin duelako.
 4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide kopurua betetzen ez delako.
 5. Desegitea agintzen duen epai judizial irmoa dagoelako.
 6. Elkartearen xedeak betetzea ezinezkoa delako.
- 44.-artikulua.- Elkartearen deseginez gero, desegitea adosteko deitutako Batzar Nagusiaren ezohiko bileran Batzorde Likidatzailea izendatuko da, eta hura arduratuko da dauden funtsez.
- Bazkideei eta hirugarrenei begirako betebeharrak sozialak ase ostean ondare sozialak geratzen bada soberan, irabazi asmorik gabeko entitate bati emango zaio edo irabazi asmorik gabeko helburuetara bideratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Batzar Nagusiak Barne Araudi bat onartu ahalko du, Estatutu hauek garatzeko. Dokumentu horrek ez ditu inolaz ere aldatuko Estatutuetan jasotako aginduak.


i.B. Presidenta


Secretario